



21/2003 FORU ARAUAK DAKARTZAN ALDAKETAK

JONE ARIZTONDO URRETABIZKAIA

Erakundeekiko Konpromisoen eta Udalentzako Laguntzaren Zerbitzua

La nueva Norma Foral 21/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, introduce una serie de modificaciones sobre la normativa estatal, la Ley 3/1988, Reguladora de las Haciendas Locales, aplicable en esta materia hasta su entrada en vigor. Asimismo, introduce algunos cambios sobre su predecesora, la Norma Foral 4/1991, declarada nula de pleno derecho por el Tribunal Supremo. Este artículo recoge un estudio comparativo del contenido de la Norma Foral 21/2003 y las dos normativas, foral y estatal, citadas anteriormente.

2 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 2003ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean. Ordura arte Estatuko legeria zen aplikagarria Gipuzkoan gai horietan: 39/1988 Legea, Hazienda Lokalak arautzen dituen, eta 500/1990 Errege Dekretua, aurrekoaren VI. Tituluaren 1. Kapituluak, aurrekontuei dagokiena, garatzen duena.

Aurrez, 1991n, Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartua zuten 4/1991 Foru Araua, Erakunde Lokaletako Aurrekontuei buruzkoa. Estatuaren Administrazioak Foru Arau horren kontra helegitea jarri zuen, ordea, Euskadiko Auzitegi Nagusian. Sententzia 1994an argitaratu zen, eta Foru Araua erabat deuseza jo zuen. Erabaki horren kontra kasazio errekurtsua aurkeztu zen baina 1999ko urrian Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen Euskadiko Auzitegi Nagusiaren sententzia. Beraz, urte horietan aplikagarria izan den legeria Estatukoa izan da, lehen aipatutakoa. Artikulu honek duen helburua da azaltzea zein aldaketa dakartzan onartu berria den foru arauak, bai 4/1991 Foru Arauarekin alderatuta eta bai 39/1988 Legearekin alderatuta.

1 21/2003 FORU ARAUAREN ETA 4/1991 FORU ARAUAREN ARTEKO KONPARAKETA.

21/2003 eta 4/1991 Foru Arauen edukia, orokorrean, oso antzekoa da. Aldaketa txiki batzuk badira, ordea, batetik bestera, honako multzoetan bil genitzakeenak:

- Edukiaren funtsezko aldaketak
- Erregelamendutik Foru Araura jasotako xedapenak
- Enpresen Kontabilitate Plan berrira moldatzeko aldaketak
- Izen aldaketak

Zehaztu ditzagun orain xehe-xehe aldaketa horiek:

1.1. Edukiaren funtsezko aldaketak:

Aplikazio eremua

Foru arauaren lehenengo artikuluan, aplikazio eremuari buruzkoan, paragrafo berri bat sartu da, horrela dioena:

“Organismo autonomo bat sortzeko araua ematen denean, bertan berariaz adierazi behar da nolakoa den, egingo dituen jarduerak kontuan hartuz”.

Sozietate publikoak

3. artikuluan, aldiz, aurrekontuen definizioa eta integrazioari buruzkoan, kendu egin da ondoko paragrafoa, Sozietate Publikoei erreferentzia egiten ziena: “Sozietate hauei dagokionez eta partaidetza kapital edo fondozienaren %100a baino txikiagoa denean, hauen organoek har ditzaten erabakien kaltetan izan gabe hartu behar dira aurrekontu-arteztarauak, Aurrekontuak baitira Sozietate Publiko horretan Udal Entitateak izango duen jarduera ekonomikoaren plangintza”.

Aurrekontu orokorren edukia

Foru arauaren 6. artikulua, aurrekontu orokorren edukia arautzen duena, aldatu egin da eta orain hobeto bereizten ditu, batetik, toki erakundeek eta beraien organismo autonomoen aurrekontuen edukia eta, bestetik, merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoen aurrekontuen edukia. Dena dela, aldaketa dokumentuen ordenazioan bakarrik egin da, ez edukietan.

Ordainketa-kredituen definizioa

Foru arauaren 8. artikuluan, gastuen orriari buruzkoan, aldatu egin da bertan azaldu behar duten ordainketa kredituen definizioa. Izan ere, orain ordainketa kredituek urteko obligazioen aurreikuspenak (O fasea) jasotzen baitituzte; lehen berriz, ordainketa kredituek urteko ordainketen aurreikuspenak (P fasea) jasotzen zituzten.

Sarrera arruntak eta kapitalezkoak

Foru arauaren 11. artikuluan, aurrekontu orokorren egitura ekonomikoari buruzkoan, sarrera arruntak eta kapitalezkoak bereizten dira, kapitulu bakoitza zein multzotakoa den adieraziz. Aldaketa honen helburua koherentzia gordetzea da, gastuetan lehendik ere egiten baitzen sailkapen hori.

Aurrekontuaren onespeneren ondorengo tramiteak

Foru arauaren 15.4 artikuluan, Aurrekontu orokorren onespeneren ondorengo tramiteak jasotzen dituzte, bai lehen eta bai orain zera dio, behin betiko onetsi ondoren, aurrekontu orokorraren kopia bidaliko zaiola Gipuzkoako Foru Aldundiari. Aldea dago, lehen arauak zioela igorpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzen zen aldi berean egin behar zela, eta orain, xehetasun horren orde, esaten duena da Gipuzkoako Foru Aldundiak bidaliko diela aurrekontu horien kopia administrazio eskudunei. Bukaera bera eman zaio baita ere foru arauaren 49.5 artikuluari, aurrekontuen likidazioaren onespeneren ondorengo tramiteei buruzkoari: "Toki erakundeek beren aurrekontuen likidazioaren kopia bidaliko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari onetsi eta hilabete igaro aurretik. Gero Foru Aldundiak administrazio eskudunei bidaliko die". Esan behar da 4/1991 Foru Arauaren kontra jarritako helegitearen arrazoiak bat Estatu Administrazioari dokumentazio hori bidali beharra ez jasotzea izan zela.

Kreditu zabalgarriak

Foru Arauaren 24.4 artikuluan, kreditu zabalgarriak buruzkoan, xehetasun bat kanporatu da. Puntu horretan azaltzen denez, zabalgarriak dira, nahiz eta izen horrekin ez azaldu, pertsonalaren nahitaezko gizarte aurreikuspenaren araubideari buruzko betebeharrak dagozkien ordainketa kredituak. 23/2001 Foru Arauak ez bezala, 4/1991 Foru Arauak espreski jasotzen zuen ez zela derrigorrezko kreditu horiek berariazko finantzazioa izatea, eta hori izan zen, hain zuzen ere, foru arau horren aurka erabilitako beste argudiotako bat.

Kredituen araubidea: betebeharren eskagarritasuna

Foru Arauaren 26.2 artikuluari, betebeharren eskagarritasunari buruzkoari, bukaeran aipatzen den salbuespena erantsi zaio: "Auzitegi, epaile eta administrazio agintariak ezin izango dute betearazpen agindurik luzatu, ez eta bahitura probidentziarik eman ere, toki ogasunaren eskubide, fondo, balore eta, oro har, ondasunen aurka, ez eta toki erakundeei fidantza, gordailu eta gauderik eskatu ere, erabilera edo zerbitzu publikorako ondare-ondasunak direnean izan ezik". Azken salbuespen hau Auzitegi Konstituzionalaren sententzia baten ondorioz jaso da, Estatuan 39/1988 Legearen 154.2 artikulua ere aldarazi zuena.

Kreditu gaikuntza

Foru Arauaren 31. artikuluan arabera, kreditu gaikuntza finantzatu duen sarrerak likidatuta egon behar du (edota konprometitua gutxienez, beste entitateen ekarpena denean). Horrez gain, gaitutako kreditua ezingo da gastatzen hasi bera finantzatu duen sarrera Diruzain-

“

Badira zenbait xedapen 4/1991 Foru Arauak jasotzen ez zituenak, baina bai 96/1992 Foru Dekretuak. Horietako batzuk 21/2003 Foru Arauan bildu dira, segurtasun juridikoaren mesedetan.

”

tzan gauzatu arte, honako sarrera bat denean: zerbitzu prestazio batek datorrena edota mailegu baten itzulketak.

Halaber, artikulua honetan jaso da krediturik gaitu ahal izango dela partida zabalgarrietan eta kreditu globalean, likidatutako tributu sarrera berri edota handiagoz baliatuz.

Aurrekontuen luzamendua

Foru Arauaren 50 artikuluan, luzamendua irauten duen bitartean kreditu transferentzien eta aurrekontuen aldaketan araubideari buruzkoan, lehen "kredituen birjarpena" forma aipatzen zen kreditu aldaketa mota bezala, baina kanporatu egin da, forma hori ez baita existitzen.

Urteko orrien eta Kontuen prestakuntza eta onspena

Foru Arauaren 63.2 artikuluan, aipatzen denean Udalburuak prestatutako Kontu Orokorra aurkeztu egin behar dela toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren aurrean, kendu egin da lehen jasotzen zen xehetasun bat, hain zuzen, azaltzen duena nola dagoen osatuta batzorde hori. Izan ere, ez da beharrezkoa aipatzea, bere araudian erregulazio propioa baitu.

Kontu-hartzailtza: fiskalizazio mugatua.

Foru Arauaren 71 artikuluan, fiskalizazio mugatuari buruzkoan, lehendabizi aipatzen dira zein gastu ez dauden aurretiazko kontu-hartzeari lotuta. Horien artean, 4/1991 Foru Arauan "hornidura txikiak" aipatzen ziren eta orain, orde, "kontratu txikiak". Izan ere, ez baitauka zentzurik hornidura txikiak aurretiazko kontu-hartzetik salbu izatea eta obra eta zerbitzu txikiak fiskalizatu beharra. Bestalde, bigarren puntuak, xedatuta dago Udalbatzak erabaki ahal izango duela aurretiazko kontu-hartzea frogaketa batzuetara murriztea. Desagertu egin da aurreko foru arauak egiten zuen aipamena, murrizketa hori bakarrik 50.000 biztanletik gorako herrietako toki erakundeentzat gordetzen zuena.

Araubide erraztua

Bigarren Xedapen Gehigarrian ez da ematen foru arau hau epeka ezartzeko aukera, aurreko foru arauak ematen zuen antzera. Hala ere, aukera ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari araubide erraztu bat onar dezan, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan aplikatzeko.

Foru arauaren garapenerako epea

Hirugarren Xedapen Gehigarriak ez du eperik jartzen foru arauaren garapenerako.

2004ko aurrekontuen onarpena

Bigarren Azken Xedapenak jasotzen du nola egokitu behar duten foru arau berrira, batetik, araua indarrean

jarri zenean 2004ko aurrekontuak onartuta zituzten udal entitateek; eta, bestetik, araua indarrean jarri zenean aurrekontuak prestatzen ari ziren entitateek. Aurrenekoek egokitzapena Udalbatzarraren erabaki baten bidez egin ahal izango dute, eta erabaki horri aurrekontuaren onarpenerako eskatzen diren betebeharrak berdinak aplikatuko zaizkio publikitate, erreklamazio eta errekursoei buruz. Bestalde, foru araua indarrean jarri zenean aurrekontuak prestatzen ari ziren udalek foru arau berriaren xedapen-tara egokitzuz onartu, gauzatu eta likidatu beharko dute aurrekontua.

1.2. 96/1992 Foru Dekretuaren hainbat xedapen, orain Foru Arauan jaso direnak:

Badira zenbait xedapen 4/1991 Foru Arauak jasotzen ez zituenak eta 96/1992 Foru Dekretuak (Foru Araua garatzen zuen Erregelamendua) jasotzen zituenak. Horietako batzuk 21/2003 Foru Arauan bildu dira, segurtasun juridikoaren mesedetan. Honakoak dira:

Aurrekontuak egiteko eta onesteko eskumena

Foru arauaren 14. artikulua, Aurrekontu orokorra egin eta onesteko eskumenari buruzkoak, erregelamenduaren 19.6 artikuluan jasotakoa errepikatuz, honela dio: "Nolanahi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira". Hau da, aurrekontua onartzera-koan eragiketa arruntek superabita eman behar dute. Honekin saihestu nahi da kapitalaren diru sarrerak erabiltzea eragiketa arruntak finantzatzeko edota maileguak amortizatzeko, bai aurrekontua onartzera-koan, bai aurrekontua aldatze-rakoan.

Konpromiso-kredituak

Foru arauaren 22.2 artikuluan, konpromiso-kredituei buruzkoan, erregelamenduak 26.2 artikuluan jasotako paragrafo hau sartu da: "Konpromiso-kredituak bestek finantzatzen baditu, finantzaketaren zenbatekoa ez da konputatuko gastu gisa aurreko paragrafoan aipatutako mugen ondoretarako". Beraz, etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarrean dauden konpromiso-kredituen zenbateko metatua, finantzaketa lotua duen zatia kenduta, ezin da izan likidatutako azken ekitaldiko sarrera arrunten %25 baino handiagoa.

Kreditu globala

Foru arauaren 23. artikuluan, kreditu globalari buruzkoan, salbuespen bat jarri zaio bere erabilerari, erregelamenduaren 27. artikulua zioen bezala: "Kreditu globalak jatorritik erabili behar dira beti; globala ezin da inolaz ere gehi-

tu, gero udalbatzak baimendu eta aldaketa onetsi ezean, beti ere hasierako ordainketa-kredituen %5eko muga errespetatzen dela". Honek bidea irekitzen du kreditu globala urtean zehar sortzeko edota handitzeko, izan ere, askotan kreditu horren hornidurarako ez da izaten behar hainbat finantzaketa urte hasieran, baina bai urtean zehar (sarrera handiagoak edota soberakinak beste kredituetan).

Kreditu transferentziak

Foru Arauaren 29. artikulua, kreditu transferentzien araubideari buruzkoak, erregelamenduaren 27. artikuluan zetorrena jaso da: "Ekitaldian onesten diren kreditu transferentzietan 14.6 artikuluan xedatutakoa bete behar da". Hau da, aurrekontuen onarpenean eskatzen den defizit eza (nahiz eragiketa arruntetan, nahiz guztira) kreditu transferentziei ere eskatzen zaie.

Kreditu gaikuntza

Foru Arauaren 31. artikuluan arabera, sarrera tributarioek finantzatu dezakete kreditu gaikuntza partida zabalgarrietan eta kreditu globalean. Horretarako, likidatutako sarrera handiagoak edota aurreikusitako sarrera berriak erabil litezke.

Gastuaren gauzatzearen faseak

Foru arauaren 40. artikuluan, gastuaren gauzatzearen faseak deskribatzerakoan, saihestu nahi izan da ordainketa-kreditu hitza, bertan ezarritakoa konpromiso-kredituentzat ere baliagarria baita.

Aurrekontuaren likidazioaren agiriak

Foru arauaren 47. artikuluan, aurrekontuen likidazioan jaso beharreko agiriei buruzkoan, erregelamenduaren 56. artikulukoak errepikatzen dira. Beraz, 4/1991 Foru Arauan aipatutakoez gain, beste honakoak ere eskatzen dira: "3. Aurrekontutik kanpoko zordunen eta hartzekodunen saldoen orria, aplikatu gabeko ordainketak eta sarrerak barne direla", "8. Sarrerak loturik dituzten gastuen finantzaketan izandako desbideraketen analisia" eta "10. Diruzaintzaren gerakina ekitaldia ixtean".

Diruzaintzako Gerakina eta aurrekontua

Foru Arauaren 48. artikulua aurrekontuen likidazioarekin lotutako definizioak jasotzen ditu, eta bere edukian hau sartu da, lehen erregelamenduaren 59.8 artikuluan zetorrena: "Diruzaintzako gerakina inolaz ere ezin da izan hasierako aurreikuspenen osagaia eta ondorioz ezin erabili izango da gastuen aurrekontuko hasierako kredituak finantzatzeko".

Aurrekontuen luzamendua

Foru arauaren 50 artikuluan, aurrekontuen luzamenduari buruzkoan, lehen erregelamenduaren 61.4 artikuluan eza-

“
4/1991 Foru Araua, terminologian eta informazioa aurkezteko eran, ez zetorren bat hilabete batzuk lehenago onartutako enpresen Kontabilitate Planarekin.”

”

rritakoa sartu da, hain zuzen, konpromiso-kredituak berez sartuko direla luzatutako aurrekontuan.

1.3. Enpresen Kontabilitate Planera egokitzeko aldaketak:

4/1991 Foru Araua, terminologian eta informazioa aurkezteko eran, ez zetorren bat hilabete batzuk lehenago onartutako enpresa pribatuen Kontabilitate Plan berriarekin, ezta ondoren etorri ziren zenbait sektore-planekin ere. Erregelamendua, ordea, egokituta zegoen plan berri horietara, eta 21/2003 Foru Araua ere bai. Aldeak honakoak dira:

Galeren eta irabazien kontua

Terminologiari dagokionez, hauek dira aldaketa deigarriak: "emaitzaren kontua" erabili ordez "galeren eta irabazien kontua" erabiltzen da; "ekitaldiko emaitza" erabili ordez "ekitaldiko aurrekontu-emaitza" erabiltzen da, izan ere, "ekitaldiko emaitza" izena ondare-emaitza adierazteko gordetzen da, hau da, galeren eta irabazien kontuak emandakoa;

Urteko Orriak eta Kontuak

Urteko orriak eta Kontuak dokumentu hauekin osatzen dira: Egoeraren Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Memoria. Hiru horiekin batera, enpresek ez bezala, toki entitateek Aurrekontuaren likidazioa aurkeztu beharko dute.

Finantzaketa Taula

21/2003 Foru Arauarekin Finantzaketa Taula Memoriaren osagai izango da, beste dokumentu batzuekin batera. 4/1991 Foru Arauak Finantzaketa Taula Memoriatik kanpo aurkeztea jasotzen bazuen ere, erregelamenduak ordurako jasotzen zuen aldaketa hau.

1.4. Zenbait kontzepturen deitura aldaketak:

Orokorrean, badira kontzeptu batzuk 21/2003 Foru Arauaren testuan zehar sarritan erabilitakoak eta lehen zuten deitura aldatu egin zaienak. Honakoak dira:

- Lehen "udal erakunde" nahiz "toki erakunde" erabiltzen bazen ere, 21/2003 Foru Arauan "toki erakunde" erabiltzen da beti, termino generikoagoa, eta beraz juridikoki zuzenagoa, delakoan.
- Lehen "Aurrekontu-exekuziorako Udal Araua" erabiltzen bazen ere, 21/2003 Foru Arauan "Aurrekontuak Gauzatzeko Araua" erabiltzen da.
- Aurrekontuen egiturari buruz aritzerakoan "interesak" esamoldearen ordez "gastu finantzarioak" erabiltzen da, esanahi generikoa adierazi nahi denean.
- Aurrekontu-kredituen araubideari eta kreditu aldaketei buruz ari denean, "aurrekontu-kreditu" hitza era-

biltzen da "ordainketa-kreditu" edo "baimendutako kreditu" kontzeptuen lekuan.

- Aurrekontuen likidazioari buruz ari denean, sarrera eta gastuen exekuzio faseei buruzko terminologia ere bateratu egin da, "sortutako eskubide eta betebeharrak" kontzeptuaren ordez "aitortutako eskubide eta betebeharrak" erabiltzen da, eta aurrekontu-eragiketen emaitza definitzerakoan "hartutako betebeharrei" erreferentzia egin ordez "aitortutako betebeharrei" egiten zaie.

2 21/2003 FORU ARAUAREN ETA 39/1988 LEGEAREN ARTEKO KONPARAKETA

Hemen jasoko ditugu atalez atal bi arauen artean dauden diferentzia nabarmenenak, guztiak ez badira ere.

Aurrekontu orokorren integrazioa

39/1988 Legeak 143 artikuluan dioenez, toki erakundeen Aurrekontu orokorrak bere barne hartzen ditu merkataritza-Sozietateen aurreikuspenak, bai sarrerarenak bai gastuenak, beren kapital sozial guztia Toki erakundearena denean. Foru arauaren 3. artikulua araberan, ordea, ez da nahitaezkoa sozietate publikoen kapital guzti-guztia Toki erakundearena izatea, nahikoa baita gehiengoa izatearekin.

Organismo autonomoen eta sozietate publikoen epea dokumentazioa aurkezteko

Foru arauak 14. artikuluan dioenez administrazio organismo autonomoek, merkataritzako organismo autonomoek eta sozietate publikoek urte bakoitzeko irailaren 30era arte izango dute epea beren aurrekontuak edota bestelako dokumentazioa (izaeraren arabera) toki erakunde buri bidaltzeko, honek Aurrekontu orokorra osatu dezan. Estatuko legearen 149 artikulua dioenez epe hori irailaren 15era artekoa izango da.

Aurrekontuaren onespeneren ondorengo tramiteak.

39/1988 Legearen 150. artikulua dioenez, Aurrekontu orokorra behin betiko onartu eta gero bere kopia bidali behar zaio Estatuko Administrazioari eta dagokion Autonomi Erkidegoari. Foru Arauaren 15.4 artikuluan, berriz, onartutakoaren kopia Foru Aldundira bidaliko da eta honen ardura izango da beste administrazio eskudunei igortzea.

Aurrekontuen luzamendua

Foru Arauaren 50.2 artikulua dioenez, luzatzen diren kredituen zenbatekoa zehazteko kontuan hartu behar dira amaitutako azken ekitaldiko hasierako kredituez gain, baimendutako transferentziak, zabalkuntzak eta gainerako aldaketa guztiak. Aldiz, Estatuko erregelamenduak, 500/90 Errege Dekretuak 21 artikuluan dioenez, ekitaldi berria hasita, ez balitz indarrean jarri dagokion aurrekon-

tua, orduan luzatuzat joko da aurreko ekitaldikoa, beti ere, gehienez, zituen hasierako kredituen limite globalarekin.

Egitura programa funtzionalen arabera

Foru Arauaren 12. artikulua Estatuko Legearen 148. artikulua baino sakonago deskribatzen du aurrekontuen egitura programa funtzionalen arabera. Esaterako, egitarau bakoitzean jarraipena egiteko moduan zehaztu beharko dira honakoak: dituen helburuak, behar dituen giza eta finantza baliabideak, egin beharreko jarduerak eta horretarako arduradunak. Gainera, egitarau bakoitzean, burutuz gero, lor daitezkeen sarreraren informazioa bilduko da, beti ere aurrekontuko sarreraren orrian ageri badira. Konpromiso-kredituak beraiei dagozkien ordainketa-kredituei aipamena behar bezala eginda aurkeztuko dira, ordainketa-kreditu horiek sartuta dauden eginkizun egitarauen barruan.

Partiden arteko lotura mailak (binkulazioak)

Foru Arauak 19.2 artikuluan dioenaren arabera, partiden arteko loturak Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarritakoak izango dira, eta espreski ez balira zehaztuko, orduan artikulua horretan bertan zehazten direnak izango dira: transferentzietan, inbertsioetan eta finantza aktiboetan, lotura programa funtzional eta kontzeptu mailan egingo da; ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketetan, finantza gastuetan edota finantza pasiboetan, lotura programa funtzional eta kapitulu mailan egingo da; pertsonal gastuetan, lotura kapitulu mailan egingo da. Estatuko Legearen planteamendua bestelakoa da: Estatuko aurrekontu-legeriak esandakoa nagusitzen da partiden arteko lotura maila zehazterakoan eta bakarrik erregelamenduan aipatzen diren kasuetan arautu daitezke, Aurrekontuak Gauzatzeko Arauaren bidez, lotura maila ezberdinak.

Kredituen erabilgarritasuna

Kredituak erabilgarriak izan daitezzen, Foru Arauak, 19. artikuluan, eskatzen ez dituen baldintzak eskatzen ditu Estatuko Legeak 154.6 artikuluan. Esaterako, finantzaketa hirugarren batek emandako dirulaguntzatik, dohaintzatik edo beste edozein emate eratik badator, beharrezkoa da emate konpromiso irmoaren dokumentu frogagarria; eta finantzaketa zorpetze eragiketa batetik badator, sarreraren orrian IX kapituluaren hasierako aurreikuspenetan agertzen delarik, beharrezkoa da edukitzea 54. artikulua xedatutako baimena.

Ordainketa-kredituen muga izaera

Foru Arauak, 20. artikuluan, Estatuko Legeak ez bezala, zehaztu egiten du ordainketa-kredituen muga izaera zenbaterainokoa den, horrela diolarik: merkataritzako organismo autonomoen kasuan izaera mugatua dute transfe-

rentziak, dirulaguntzak, inbertsioak, finantza eragiketak (interesak barne) eta pertsonalaren gastuei aurre egiteko ordainketa-kredituak; sozietate publikoen kasuan, izaera hori bakarrik transferentziak eta dirulaguntzak emateko ordainketa-kredituek dute; pertsonalaren kredituei dagozkenez, toki entitateen eta administrazio organismo autonomoen kasuan, muga izaera dute langile kopuruak eta kredituaren zenbatekoak, eta merkataritzako organismo autonomoen eta sozietate publikoen kasuan, balioztagarri izaera dute merkataritzako organismo autonomoen langileen gastuei aurre egiteko kredituen kasuan izan ezik, horiek muga izaera baitute langile kopuruaren aldetik eta zenbatekoaren aldetik.

Konpromiso-kredituak

Foru Arauak 22. artikuluan arautzen ditu konpromiso-kredituak eta Estatuko Legeak 155. eta 156. artikuluetan. Batak eta besteak nola erregulatzen dituen ezberdina da. Hasteko, Estatuaren legeriak ez du "konpromiso-kredituak" deitura erabiltzen, "urteanitzeko gastuak" baizik. Ondorioz, Estatuan gastu horiek ez dute kreditu baten babesik, eta zuzenean egotzen zaizkio partidari.

Foru Arauak konpromiso-kredituen orrian sartu ezin daitezkeen gastuen zerrenda jasotzen du, bertan azaltzen direlarik pertsonalaren gastuak, gastu finantzarioak, zorpetzearen amortizazioa, ondasun higiezinaren errentamenduari dagozkion konpromisoak, izaera iraunkorra duten gastuak eta segidako traktukoak. Estatuko Legeak, aldiz, konpromiso-kreditua sortarazi dezaketen gastuak aipatzen ditu, eta haien artean ondasun higiezinaren errentamendua eta toki erakundeek eta beren organismo autonomoen zorren karga finantzarioa.

Konpromiso-kredituen zenbatekoari Estatuko Legeak ez dio mugarik jartzen, baina Foru Arauak bai, eta xedatzen duenez etorkizuneko ekitaldi bakoitzean indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin da izan likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arruntan ziozko baliabideen %25 baino gehiago. Gainera, geroagoko adjudikazioaren menpeko eragiketei dagozkienean eta aurretik ezin finka daitezkeen zenbatekoak direnean, Udaltzako baimena emanda, sina daitezke kontratuak hasieran aurreikusitako edota onetsitako zenbatekoaren gaineko %20ko gehikuntzarekin.

Bestalde, Foru Arauak ez du eperik jartzen baina bai Estatuko Legeak: lau urtekoa inbertsioentzat, kapitalaren transferentzientzat, hornidurentzat, aholkularitzarentzat, laguntza teknikoarentzat, mantentze-lanetarako, ez ohiko tresneriarentzat, -aipatutako kontratu guzti hauek urtebeteko epearen azpitik merezi ez dutenean-, eta zenbait transferentzi arruntentzat.

Era berean, Foru Arauak ez du mugarik jartzen gastua banatzeko denboran zehar. Estatuko Legeak, aldiz, hau eskatzen du: inbertsioetarako eta transferentzietarako

“
Estatuko Legerian, urteanitzeko gastuek ez dute kreditu baten babesik, eta zuzenean egotzen zaizkio partidari.”

”

kredituetan, kredituaren onespeneraren hurrengo ekitaldian gastua ez dadila izan konpromisoa hartu zenaren ekitaldiko kredituaren %70 baino handiagoa, portzentai hori %60 delarik bigarren ekitaldian, eta %50 hirugarrenean eta laugarrenean. Hala eta guztiz ere, zenbatekoak igo daitezke Aurrekontuak Garatzeko Arauan zehazki jasotako egitarau eta inbertsio proiektuen kasuan, eta Udalbatzak igo ditzake portzentaiak salbuespeneko kasuetan.

“
Foru Arauan zabalgarritasuna kreditu baten ezaugarri bat da; Estatuko Legean berriz kreditu zabalgarriak kreditu aldaketa mota bat dira.
 ”

Kreditu transferentziak

Foru Arauak 27 eta hurrengo artikuluetan arautzen du kreditu aldaketan araubidea eta Estatuko Legeak 160 eta hurrengo artikuluetan. Biek diote transferentzien erregimena eta bere onespenerako eskumena arautuko direla aurrekontua gauzatzeko oinarrietan. Gero

bakoitzak bere xehetasunak gaineratzen ditu. Esaterako, Estatuko Legeak dio kasu guztietan transferentzia bi funtzio taldeen artean denean Udalbatzak onartuko duela, altak eta bajak pertsonalaren kredituekin lotuak daudenean izan ezik. Bere aldetik, Foru Arauak zehaztasun hauek ematen ditu: batetik, egitarau funtzional berean egiten diren transferentziak erakundeko buruak onartuko ditu, gutxitutako kreditua ondasun inbertsionarako denean izan ezik, orduan Udalbatzak onartu beharko baititu; bestetik, transferentzia egitarau ezberdinen artean egiten denean erakundeko buruak onartuko du, beti ere jatorrizko eta destinoko egitarauetako aldaketen diferentzia metatuak aurreikusitako hasierako dotazioen %25 gainditzen ez duenean, eta gainontzeko kasuetan Udalbatzak onartuko du. Hala eta guztiz ere, informazio, erreklamazio eta publikazioaren betebeharretik salbu diren gaitan, erakundeko buruari edo Udalbatzari emandako eskumenak espreski delegatu ahal izango dira Aurrekontuak Garatzeko Arauan, eskuordetze horren ondorioz onartutako aldaketan berri Udalbatzari eman beharko zaiolarik egindako lehen bileran.

Estatuko Legeak dioenez, Udalbatzak onartutako aldaketa guztiek bete behar dituzte informazio, erreklamazio eta publizitateari buruzko erregelak, aurrekontuak onartzera koan bezala. Foru Arauak dioenez, ordea, erregela horiek bete beharrekoak dira bakarrik Udalbatzak kreditu gehigarriak onartzen dituztenean (ez dira bete behar kreditu gehigarriak erakundeko buruak onartzen dituztenean, % 5 baino txikiagoak izateagatik aurreikusitako salbuespena erabiliz). Dena dela, Aurrekontuak Garatzeko Arauan beti zorroztu daitezke informazioa eta publizitate buruzko erregela horiek.

Beste diferentzia bi legerien artean da Estatukoak xedatzen duela transferentziek ezin diela afektatu kreditu zabalgarriak, eta Foru Arauak aukera hori ematen duela baina ondoren izaera hori galduta.

Kreditu gaikuntza

Estatuko Legeak 162 artikuluan arautzen ditu eta Foru Arauak 31 artikuluan. Bien arteko diferentzia garrantzitsua da, Estatukoak ez du uzten kredituak gaitzen tributu sarrerekin. Foru Arauak, ordea, aukera hori ematen du zabalgarriak diren partidetan eta kreditu globalean, likidatutako tributu sarrera berri edota handiagoez baliatuz.

Kreditu globala

Estatuko Legean existitzen ez den kreditu mota da, Foru Arauak 23. artikuluan jasotzen duena. Bere helburua du aurre egitea aurrekontuan dotaziorik ez duten beharrei edo kreditu urria duten beharrei eta, baita ere, finantzatzea zabalgarritzat hartzen diren kredituak. Kreditu honen zenbatekoa ezin da izan ordainketa-kreditu guztien %5 baino handiagoa, kreditu globala bera barne delarik. Ezin da zuzenean kreditu global horren aurka gastu baimenik eman, baizik eta transferitu egin beharko da beste kredituaren saldoa handitzeko. Kreditu globala bera bakarrik handituko da Udalbatzak baimendu eta gero, beti ere %5eko muga errespetatuz. Kreditu globaletik egiten diren transferentziei ez zaizkie aplikatuko Foru Arauaren 29 artikuluan jasotako kreditu transferentzien mugak, eta kreditu globala erabili ahal izateko baimena Alkateak eman beharko du, Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak beste zerbait ez dioten bitartean.

Kreditu zabalgarriak

Foru Arauak 24. artikuluan arautzen ditu. Honek dioenez zenbatekoa handitu dakiekeen kredituak dira, bai zuzenean lotutako benetan bildutako sarreraren arabera, bai kreditu globala erabilita. Edozein kasutan, gastuen orrian zabalgarriak direla adierazi behar da eta zehaztu egin behar da zenbateraino zabal daitezkeen. Baita ere, zabalgarriak dira, nahiz eta horrela definituta ez azaldu, pertsonalaren nahitaezko gizarte aurreikuspenaren araubideari buruzko betebeharrak dagozkien ordainketa-kredituak.

Diferentzia handiena honakoa da: Foru Arauan zabalgarritasuna kreditu baten ezaugarri bat da; Estatuko Legean berriz, 159 artikuluan, kreditu zabalgarriak kreditu aldaketa mota bat dira.

Kudeaketa-kredituak

Estatuko Legeak ez du jasotzen kreditu mota hau. Foru Arauak, berriz, 25 artikuluan arautzen ditu eta bertan dioenez, toki erakundeak eskudunak ez diren arloetako proiektuak burutzeko, beste erakunde publikoen fondoak hartzetik sortzen diren betebeharrak aurre egiteko behar diren ordainketa kredituak dira. Gastuen orrietan jaso behar dira beraien izaera azalduz.

Kreditu gehigarriak

Estatuko Legeak 158 artikuluan arautzen ditu beste izen bat emanez, izan ere bi motatakoak izan baitaitezke, ez ohiko kredituak -sortutako beharri aurre egiteko krediturik ez dagoenean- eta kreditu osagarriak -dagoen kredituaren zenbatekoa urria denean-. Foru Arauak 34 artikuluan arautzen ditu. Bi erregulazioen arteko alderik nagusia zera da, Foru Arauak ahalmena ematen duela Aurrekontuan Garatzeko Arauan erregimen ez ohiko bat jasotzeko erakundearen buruari eskumena ematen diona kreditu gehigarriak onartzeko, urte guztiko kreditu gehigarriak Aurrekontuaren %5 baino gutxiago batzen dutenean. Estatuko Legeak ez du aukera hori ematen.

Hitzarmenen araubidea

Foru Arauak 35 artikuluan jasotzen du araubide hau eta ez du parekorik Estatuko Legean. Lurralde Historikoko beste toki erakunde batzuekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioarekin edo Estatuaren Administrazioarekin egindako hitzarmenen ondorioz jasotako fondoek finantzatu beharreko gastuak jasotzen dituzten kredituei egiten die erreferentzia, fondo horiek aurreikusitakoak baino handiagoak direnean. Estatuan kreditu gaikuntzaren bidez sortzen dituzte beharrezko kredituak.

Aurrekontuaren likidazioa

Foru Arauak Aurrekontuen likidazioa 46 eta hurrengo artikuluetan arautzen du, eta Estatuko Legeak 172 eta hurrengo artikuluetan. Bien arteko diferentzi nagusienera bat zera da, aurrekontu-emaitza definitzerakoan Estatuko Legean barne hartzen duela soilik ekitaldiko aurrekontu-eragiketen emaitza, eta Foru Arauak, horrez gain, barne hartzen duela aurreko ekitaldietako likidatuetako aurrekontu-eragiketen emaitza. Beste diferentzia bat

likidazioa prestatzeko epean dago, Estatuko Legeak hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehenago prestatu behar dela dio eta Foru Arauak hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehenago. Gainera, behin onartu eta gero, Estatuko Legeak agintzen du likidazioaren kopia bidaltzeko Estatuko Administrazioari eta Autonomi Erkidegoari, eta Foru Arauak bakarrik Foru Aldundiari bidaltzeko agintzen du.

Kontabilitatea

Foru Arauak gai hau 59 eta hurrengo artikuluetan lantzen du eta Estatuko Legeak 181 eta hurrengo artikuluetan. Hauek dira bien arteko alde deigarrienak:

- Araudi foralak hobeto zehazten du toki erakundeak kontabilitate publikoaren araubidearen menpean egoiteak dituen helburuak.
- Estatuko Legeak Kontu Orokorrean ez ditu sartzen merkataritzako sozietate publikoenak, beren jabetza osoa toki erakundearena ez denean.
- Urteko Kontuen eta Orrien prestaketari dagokionez, Foru Arauaren arabera toki erakundearen buruak beraien berri eman beharko du hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen eta epe horretan bertan bidali beharko dituzte organismo autonomoek eta sozietate publikoek beraien kontuak toki erakundera. Estatuan epe hori maiatzaren 15a bitartekoa da.
- Foru Arauaren arabera, Udalburuak osatutako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu behar da toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren aurrean informea egin dezaten. Estatuan epe hori ekainaren 1a bitartekoa da.
- Foru Arauaren arabera, Udalbatzak duen epea Kontu Orokorra onartzeko uztailaren 31 bitartekoa da; Estatuan, berriz, urriaren 1a bitartekoa.